



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

INGURUMENA

ETXEKO HONDAKIN ETA ANTZEKOEN ZATIKI ORGANIKOA ETA ERREUSA-ZATIKIA JASOTZEKO 10 LITROKO ONTZIAK HORNITZEKO BALDINTZA AGIRIA

Data: 2012-07-19

1 – Kontratuaren xedea.....	2
2 – Kontratuaren balioa gutxi gorabehera eta aurreikusitako unitate-hornidura.....	2
3 – Horniduraren ezaugarri teknikoak.....	2
3.1 Hornitu beharreko ontzien neurriak eta ezaugarri teknikoak.....	2
3.2 Hornitu beharreko gaiak entregatzeko baldintzak.....	4

1 – Kontratuaren xedea

Baldintza-agiri honetan oinarritutako kontratuaren helburua da etxeetako hondakinen eta, sortutako hondakin motaren ezaugarriengatik nahiz kopuruagatik, etxebizitzetan sortutako hondakinekin pareka daitezkeen horien zatiki organikoa edo erreusa-zatikia (ontzi itxia, aireztatu gabe) jasotzeko 10 litroko ontziak hornitzea.

2 – Kontratuaren balioa gutxi gorabehera eta aurreikusitako unitate-hornidura

Kontratu honen balioa 74.500 € (BEZ gabe) da gutxi gorabehera.

Hasiera batean, zatiki bakoitzarentzat hornitu beharreko unitate kopurua hau da:

HORNITU BEHARREKO ONTZI MARROI KOPURUA (ZATIKI ORGANIKOA)	HORNITU BEHARREKO ONTZI GRIS KOPURUA (GAINONTZEKO ZATIKIA)
23.000	12.450

Horiez gain, 1.800 ontzi gehiago hornituko dira, gutxi gorabehera, birjartzeko material gisa (1.200 ontzi marroi eta 600 ontzi gris).

3 – Horniduraren ezaugarri teknikoak

Hornitu beharreko elementuen ezaugarri teknikoak ageri dira jarraian, eta hornidura egiteko baldintzak ere zehaztu dira:

3.1 Hornitu beharreko ontzien neurriak eta ezaugarri teknikoak

Hornitutako materialak ezaugarri hauek bete beharko ditu:

1. Ontziak hiru zati izango ditu: tapa, gorputza eta heldulekua; eta guztiak desmuntagarriak izango dira, zatiren bat puskatuz gero, ordezkatu ahal izateko.
2. Edukiontzia tapa erraz blokeatu ahal izango da heldulekuaren bidez, edukiontziko gorputzaren aurrealdera edo atzealdera jaitsita dagoen arabera.
3. Hornitu beharreko edukiontzia kolore-paleta honetara egokitu beharko dira, RAL sistema klasikoaren arabera:

ONTZIA	RAL	RAL-RGB	IZENA
--------	-----	---------	-------

ZATIKI ORGANIKOA	8007	089-053-031	MARROI ARREA
ZATIKI ORGANIKOA GAINONTZEKO	9007	143-143-143	GRIS ALUMINIOA

Edonola ere, eskaintzaileek aurkeztu beharreko ontzien laginek ez balituzte Mankomunitatearen aurreikuspenak beteko goiko taulan definitutako kolore-paletari dagokionez, Mankomunitateak eskubidea izango du RAL-a aldatzeko kopuru handiak ekoizten hasi baino lehen.

4. Ontzia osatzen duten hiru zatiak, tapa, gorputza eta/edo heldulekua alegia, polipropilenoazkoak izango dira, eta material birziklatua erabiliko da ahalik eta neurri handienean, betiere horrek erresistentzia eta iraunkortasuna kentzen ez badiote edukiontzari edo edukiontzaren edozein atali, eta eskatutako RAL-era egokitzen bada.
5. Mankomunitateak erabakitako logoa izango dute hornitutako ontziek.
Logo zuria gorputzaren aldeetako batean jarriko da, ziur aski aurrekoan, eta kolore bakarra izango du.
Esleipendunarekin kontratua formalizatzeko garaian jakinaraziko dira logoaren diseinua, kokapena eta neurriak.
Logoa edukiontzaren gorputzean serigrafiatuko da. Logo itsasgarriak ez dira onartuko.
6. Edukiontziak erabilera jakin baterako diseinatu behar dira, eta horren arabera, edukiontzien eta horien zatien ondo jasan behar dituzte kolpeak, agente kimikoen erasoak, zatien eskuztatzea, eta abar.
Edonola ere, kontuan hartuta erabiltzaileek eraikinetik kanpora atera beharko dutela ontzia bilketa egin ahal izateko, ondo jasan beharko dituzte, baita ere, UV izpiak, tenperatura aldaketak zakarrak, eta abar.
Iraunkortasun eta erresistentzia baldintza horiek bermatzeko, eskaintzaileek egoki irizitako ziurtagiri guztiak aurkeztuko dituzte.
7. Ontzia osatzen duten zatien material plastikoan bertan inprimatuta izan behar dute fabrikazio-data eta material mota. Grabazio hori leku diskretu batean egingo da.
8. Tapa ondo ahokatu behar da gorputzean.
9. Ontziko taparen bandak ontzia bertatik zintzilikatu ahal izatea bermatu behar du, eta horretarako, gutxienez 100 mm-ko espazio aske erabilgarria izan behar du.
Bandaren zeharkako zatien esferaerdi forma edo antzekoa izan beharko du, ontzia bandatik zintzilikatze euskarria izan dadin.
10. Ontziaren pisua jasan behar duten puntuetan egitura indartuko duten elementuak jartzea balioetsiko da. Ildo horretatik, hauek identifikatu dira:

- Atzeko banda; Mankomunitateak elementu hori aholkatuko du ontzia zintzilikatzeko euskarri gisa.
- Heldulekua, ontzia zintzilikatzeko beste elementu bat izan daiteke.

1 eranskinean ageri dira ontzia osatzen duten elementuen neurriak, eta baita tolerantzia onargarriak ere.

Edonola ere, eskaintzaileek aurkeztutako ontziren batek ez balu 1 eranskinean ageri den neurriren bat beteko, baina Mankomunitatean erabiltzen diren esekitokietako posizio guztietan erabiltzeko egokia balitz, lehiaketan onartuko litzateke.

3.2 Hornitu beharreko gaiak entregatzeko baldintzak

Baldintzak:

1. Hornitutako materialaren garraioa sartuta dago kontratuaren prezioan, eta prezio hori ez du aldatuko aurreko atalean ezarritako entrega-sistemak, nahiz eta erregaien prezioak gora edo behera egin.
2. Mankomunitateaz gain, esleipendunak ere hornitutako materialaren kontrola eramango du kontratuak irauten duen bitartean, eta baita hornitu gabeko materialarena ere.
3. Mankomunitateko zerbitzu teknikoek berariaz onartuko dute entregatutako materiala, egoera onean daudela ikuskatu eta gero. Nolanahi ere, materiala jaso eta gero, eta Mankomunitateari egotzi ezin dakizkikeen arrazoiengatik, material akastunak antzemanaz gero, esleipendunak material hori birjarri beharko du, Mankomunitatearentzako inolako kosturik gabe.
4. Nahiz eta eskaintzaileak gordeta izan baldintza-agirian eskatutako ezaugarriak betetzen dituzten ontziak, ez da onartuko sei hilabete baino aurreagoko fabrikazio-data duten ontzi edo zatirik, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.
5. Proposamenak aurkeztean, eskaintzaileak tamaina errealeko modelo bat aurkeztu beharko du, muntatua eta %100 erabilgarria zatiki guztientzat (organikoa eta erreusa), Mankomunitateko zerbitzu teknikoek azter dezaten eta egoki irizitako erabilera-probak egin ditzaten.
Prozedura amaitzean, aurkeztu diren ereduen artean aukeratuak izan ez direnak jaso ahal izango dituzte eskaintzaileek.
Aukeratutako modeloa Mankomunitatean geratuko da.




Modelo horiek eta proposamen ekonomikoak Mankomunitatearen egoitzara eraman behar dira, eta bertan gordeko dira esleipena erabaki bitartean.

Modeloetakoren batek kalteren bat izango balu, galduko balitz edo lapurtuko balute behin Mankomunitatearen esku utzi eta gero, Mankomunitatea bera arduratuko litzateke kostuaz.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2012ko irailaren 13an egindako bilkuran.

Arrasaten, 2012ko irailaren 14an.
IDAZKARIA

Revisiones			
Rev	Descripción	Fecha	Aprobado



	Nombre	Fecha	SOLID EDGE EDS-PLM SOLUTIONS	
Dibujado	eosa	27/07/12		
Comprobado			Título	
Aprobado 1				
Aprobado 2				
Salvo indicación contraria cotas en milímetros ángulos en grados tolerancias ±0,5 y ±1º			A3	Plano
			Archivo: Edukiontzia10L.dft	
			Escala	Peso
			Hoja 1 de 1	